

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Erronkariko Gazta BJDk assaf arrazako esnearen erabilera baliogabetzeko hartutako erabakia jakinarazi dio Gobernuak Europari

Bere produktuak egiteko latxa ardi-esnea ia bakarrik erabiltzea proposatzen da

Jueves, 11 de septiembre de 2014

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuak, Erronkari Babestutako Jatorri Deituraren (BJD) Kontseilu Arautzailearen osoko bilkura berriak hartutako erabakia igorri dio Europako Batzordeari. Haren arabera, assaf arrazako esnearen erabilera baliogabetzeko eskatzen da haien gaztak egiteko orduan, eta latxa ardi-esnea ia bakarrik erabiltzea proposatzen du, aurrez egiten zen moduan.

Nafarroako Gobernuak kudeaketa hori egin du, bereizitako kalitateari aplikatzen zaizkion legezko baldintzak betetzeko kontrolaren aginpide eskumendun moduan.

Gogoratu behar da, 2008an, aurreko kontseiluak Europari Erronkari BJDren baldintza-plegua aldatzea eskatu ziola gazta egiteko garaian arraza berriak sartu ahal izateko. Eskaera hori onartu egin zen, beste herrialde batzuei aurka egiteko eskubidea eman zien, eta eskubide hori Frantziak egikaritu zuen. Nolanahi ere, orain arte aurka egite horren aurrean, Europako Batzordeko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiak zer erabaki hartu duen ez da jakin.

Besteak beste, "Erronkari" BJDren Kontseilu Arautzaileko kideak berritzeko, iragan ekainean Nafarroan egindako hauteskundeetan, EHNE-Nafarroa nekazaritzako erakunde profesionalaren hautagaitza bakarrik aurkeztu zen sektore ekoizlearen erroldetara eta, egileen sektorearen barnean, F erroldara (gazta beren ekoizpeneko esnearekin egiten duten gaztandegiak). Gainerako erroldetarako hautagaitzarik ez zen aurkeztu eta, beraz, EHNEren esku geratu zen lehendakaritza eta baita kontseilu arautzaile berriaren ordezkari guztia ere.

Osoko Bilkura osatu ostean, eta EHNEk Europako Batzordeak onartutako aldaketaren aurkako jarrera izanik, aldaketa hori erretiratzea proposatu du eta aurreko egoerara itzultzea, hau da, Erronkariko gazta egiteko garaian latxa ardi-esnea ia bakarrik erabiltzea, Idiazabal JDrekin gertatzen den moduan,

Nolanahi ere, erabakitzeko erantzukizuna eta esparrua Kontseilu Arautzaileari badagokio ere, Nafarroako Gobernuak agerian utzi du, kontseiluak bere deituraren defentsa bete dezan zainduko duela une oro, BJDk esan nahi duen jabari publikoko ondasunaren aginpide eskuduna eta titularra izanik.